

Olatz Gorrotxategi, 'Mari eta Gaileta Fabrika' obraren zuzendaria

“Emakumearen borroka nolakoa izan zen erakusten digu antzezlanak”

Ane López

OLATZ Gorrotxategi bilbotarrak zuzendu du Eidabe antzerki konpainiak kaleratu duen antzezlan berria: *Mari eta Gaileta Fabrika*. Galder Perezek idatzita, fabrika batean greba egiten duten emakume langile baten istorioa jorratzen du, modu horretan parekidetasuna hizpide izanik langile horiek omenduz. Gorrotxategik aitortzen duenez, “obrak entretenitzeaz gain, hezitu ere egiten du”. Euskal Herriko hainbat herritan ikusgai egon da honezkeroko eta ibilbide luzea du aurretik.

–Zer eskaintzen du *Mari eta Gaileta Fabrika* antzezlanak?

–Familia ikuskizun bat da. Gogotzeaz eta hunkitzeaz aparte emakumearen borroka nolakoa izan zen erakusten digu eta etorkizunerako tresnak ematen dizkigu, bai eskola esparruan, lanean... emakumeak dauden giro guztietan.

–Ume baten eta bere amamaren istorioan zentratzen da, ezta?

–Bai, umearen, bere amaren eta amamaren istorioan. Amama 30eko hamarkadan langilea izan zen. Lan giroa ezberdina zen baina gauza batzuk komunean mantentzen dira, izan ere, alor asko ez dira konpondu oraindik. Ama gaur eguneko langile arrunt bat da eta emakume izateagatik lanean dituen kezak eta tentsioak ikusten dira eta baita bere alabarenak ere. Kasu honetan, eskola esparruan, espazioaren erabileraren inguruan dituen arazoak isladatzen ditu.

–Hiru belaunaldiren egoera ezberdinak orduan.

–Hiru belaunaldi dira guztira, izaera guztiz ezberdineko hiru emakume, bai adinean, eta baita bizi izan duten kontestu historikoa ere. Erresistentzia da hirurek komunean dutena.

–Zein da obraren mezua?

–Norabide ezberdinetan egin dugu lan, izan ere emakumearen arazoa ez da bakarrik lanpostuetan edo eskoletan gertatzen. Oso garrantzitsua den trama adinen arteko komunikazioa da. Amama hor dagoela ikusten duzu, baina ez zaituela ulertuko pentsatzen duzu, etxeko andra bat izan dela bere bizitza osoan zehar... Kasu askotan ez ditugu familian dauden pertsonak ondo ezagutzen. Arlo horretan lan polita egin dugula uste dut, no-



“Industriako lehenengo emakumeek bidea erraztu digute”

la azkenean bata bestearen istorioa ezagutu nahi duen eta hasieran oso zaila suertatzen zen komunikazio hori azkenean egoera aldatu eta onera egiten duen ikusten da antzezlanean.

–Umorea ere erabiltzen da.

–Oso garrantzitsua da umorea bizitzan. Hunkigarria ere bada, bi-

zita bezala. Obra momentu batzuetan iraultzailea da eta emakumeak altxatu egiten dira altxatu behar direnean eta beste momentu batzuetan ondo pasatzen dugu obra ikusten momentu dibertiga-

Perspectiva de género

LA compañía teatral bilbaina Eidabe, estrenó en noviembre en Pabellón 6 la obra en euskera *Mari y la fábrica de galletas*, pieza de teatro familiar que trata sobre la igualdad y la paridad. Es un homenaje a todas esas mujeres trabajadoras que han allanado el terreno a las nuevas generaciones. Como explica su directora Olatz Gorrotxategi, “la lucha que llevaron a cabo esas mujeres trabajadoras nos ha facilitado el camino a todas”.

Con propuestas teatrales familiares, Eidabe sigue haciendo hincapié en la temática de la igualdad y ofreciendo al público trabajos divertidos, rei-

vindicativos y educativos. Y es que hace escasos meses también estrenaron la obra *Futbolistas y princesas*, con texto y dirección de Galder Pérez, en la que narran la historia de dos niños que no se sienten identificados con las reglas de identidad impuestas socialmente. Por ello, los dos romperán con los tópicos sexistas tan enraizados en la sociedad.

De ese modo, las obras de Eidabe siguen recorriendo multitud de localidades de Euskal Herria, entre ellas Etxebarri, Durango o Bilbao. Además, según recalca la di-

riak daudelako. Horregatik bi gauzak uztartzen ditugu.

–Gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak jorratzen dira ere. Urteak pasatu arren egoera aldatu ez dela islatzeko sortu da?

–Bai, izan ere, borrokan ibili ziren emakume horiek 30ko hamarkadan, industriako lehenengo emakume langileak izan ziren eta izugarritzko borroka egin zuten. Gainera, otsailean zortzi orduko lanordua sortu zenetik ehun urte igaro direla ospatu dugu. Emakume horiek borroka handia egin zuten eta langile guztioi gauzak erraztu egin dizkigute, nahiz eta oraindik emakumei lan asko egiteko geratzen zaigun. Argi dago lana emakumeek oraindik irabazi behar dugun esparrua dela, independentzia ekonomikoa edukitzeko lanetik hasi behar garelako. Pena bat da baina lan eskubide onak izan arte ezingo dugu maila berean egon. Haien lana eskertu eta gogoratu egin behar dugu, nahiz eta oraindik bide luzea geratzen zai- gune egiteko.

–Azaroan estreinatu zenuten obra Bilbon. Nolakoa izan da



“Familia osorako antzezlan da, Bilboko historia kontakuten da, guztioi interesatzen zaiguna”

publikoren harrera?

–Estreinatu arte ez dakizu guztiz jendeak izango duen erreakzioa, nahiz eta guk hasieratik lanean konfidantza handia genuen. Ez dakizu barre egingo duten, aspertuko diren... baina estreinatzean argi ikusi genuen familia osorako ikuskizuna zela, momentuoro hiru emakumeekin topera daudela ikusten delako eta jendea indartsu eta borroka jarraitzeko gogoekin irtetzen delako. Gainera, haur askok: *zer da greba?, zergatik egiten da greba?...* galdetzen dute. Etor- kizunean lan egin beharko dute eta prestatu behar ditugu. Hasieran adina mugatuta geneukan baina estreinuan ikusi genuen haur oso txikiak oso adi zeudela eta helduak ere entrentenituta zeudela.

–Ez da umeentzat bakarrik eskaintzen den obra orduan?

–Familia osoarentzat aproposa da. Antzerkia “dokumentua” da, historia, gainera gu- rea, Bilbokoa, eta hori guztioi interesatzen zaigu. Erritmo handiarekin egindako obra da, nagusientzat ere oso aproposa.

–Antzerkia erreminta kulturala da, baina hezitzailea ere badela esango zenuke?

–Guztiz. Antzerkia egiten dugun pertsonak erantzukizun bat daukagu. Ez dut esan nahi beti bandera politikoarekin egon behar dugunik, beti hezitzen eta gauza sozialetan aritzen, baina puntu batean ere eginbehar hori daukagu. Eta gai honekin are gehiago.

–Ez da memoriari buruz egiten duzun lehenengo lana. Gai hori jorratzea gustoko duzu?

–Bai, asko gustatzen zait memoria historikoa arlo guztietan, ez bakarrik frankismoaren memoria historikoa, nire *Akilesten orpoa* dena. Orokorrean memoria eta dokumentuak asko interesatzen zaizkit. Hala ere, egia da faxismoaren kontrako antzerkia asko gustatzen zaidala, bai. Gehienetan gizakiek dituzten gauza txarrenei buruz hitz egiten dut, ez dakit zein den arazoa baina nire antzezlanetan hari horretatik tiratzea gustatzen zait askotan.



“Antzerkia erreminta hezitzailea ere bada”, Olatz Gorrotxategiren ustez

riectora de *Mari eta Gaileta Fabrika* –que protagonizan las actrices Ainhoa Artetxe, Nagore González y Itxaso Paia–, las piezas son apropiadas para toda la familia.